

Vitoria-Gasteiz

2003ko
AZAROA

musika

«JESUS GURIDI»
Musika
Kontserbatorioa
Areto Nagusia

garaikidearen

VI. ZIKLOA

Arabako
Foru Aldundia

Kultura, Gazteria
eta Kirol Saria



Diputación
Foral de Alava

Departamento de Cultura,
Juventud y Deportes





Aurkezpena

Musika garaikidearen VI. zikloa gure garaiko musika hedatzeko sortu da. Izan ere, sarritan ezezagun egiten zaigun errealitatea da, ohiko kontzertu programazioetan gutxitan izaten baita. Seigarren edizio honetako egitarauak egungo musikaren erakusgarri ugari izango du, eta interpretatzaile nabarmenak izango ditugu.

Kontzertuak **Jesús Guridi musika kontserbatorioko areto nagusian** izango dira. Kontserbatorio hori bereziki sentikorra da gure garaiko musika hedatzearen inguruan. Zentroa abian denetik, musika garaikideko sorkuntzari buruzko kontzertu eta jarduerak antolatu ditu beste erakunde batzuekin, eta mundu osoko musikagile eta interpreteak ekarri dituzte. Modu horretan sortu zen ziklo hau Gasteizen, eta hainbat edizioaren ostean, erreferentzia bilakatu da gure inguruko musika jardueran.

Daniel Yacaré piano-jotzaileak hasiko du zikloa (hilaren 6a), Herbie Hancock-en irudiari buruzko jazz garaikideko kontzertuarekin. Gero, **Trio Collage-k** (hilaren 13a) harparako, gitarrarako eta marimbarako egitarau originala eskainiko du. **Trío Arteak** eta Alicanteko **César Martín** klarinete-jotzaile entzutetsuak eskainiko digute hirugarren kontzertua (hilaren 20a), eta XX. mendeko bi obra nagusi joko dituzte: Stravinsky-ren *Soldadu baten Historia* eta Messiaen-en *Denboraren Amaierako Kuartetoa*. **Jesús Guridi Instrumentu Taldeak** amaituko du zikloa (hilaren 27a), **Maite Aurrekoetxeak** zuzenduta. Egitarauan Bernaolaren, Merah-en, Gutiérrezen eta Gerhard-en obrak eta David Del Puertoren erabateko estreinaldia izango dira. **Luis García Beltrán de Guevara** musikaren historiako irakasleak hitzaldi bat emango du (hilaren 19a) jarduera egitaraua osatzeko.

musika garaikidearen
VI. zikloa

Osteguna, 6 • 20:15ean

KONTZERTUA

DANIEL YACARÉ

Pianoa

«En torno a Herbie Hancock»

Egitaraua

Intro	D.Yacaré
Chan's song	H. Hancock
Dolphin dance	H. Hancock
Tema en hanck y jugando	D.Yacaré
Maiden voyage	H. Hancock
The Sorcerer	H. Hancock

Herri kulturaren, eta batzuetan musika kultuaren munduan, Maurice Ravel bikaina *Bolero* famatuaren konposatzaile gisa azaltzen da, eta ia estilozko eta izaerazko kontzeptu bakar gisa lotzen zaio. Eta hori benetan sinestezina da, haren obra kontuan hartuta. Jazzaren testuinguruan antzeko zerbait gertatzen da Herbie Hancock-en irudiarekin. Izan ere, berari lotzen zaizkio publikoaren artean sendotutako hainbat musika estereotipo eta formula eskusibo.

Egia esan, Hancock misterioa izan daiteke diskografiaren arabera. Entzule gehienek Chicagoko maisua honako arlo hauetakoren batean sartzen dute eskusiboki: Jazz-rock-aren eremuan *Head Hunters* taldearen buru, bere *fender rhodes*-arekin eta sintetizadore taldearekin; Miles Davis-en boskoteko *hardbop* piano-jotzaile handi gisa; pop eta hip-hop musikari gisa; *Round Midnight* soinu bandako bertsio klasiko eta nahastezinetan; George Benson-ekin *bluesa* egiten; tekno-funk-eko saioak egiten DJ-ekin; VSOP musika talde mitikoan; Wayne Shorter saxofoi-jotzailearekin batera lengoaia garaikideak erabiltzen, jazz eta XX. mendeko musika modu miresgarrian elkartzen direla.

musika garaikidearen

Beraz, esateko modukoa da *Boleroa* Ravelentzat *Watermelon man* eta *Cantaloupe Island* Hancock-entzat direna dela.

Herbie Hancock-ek jazz sorkuntzaren alderdi ugari landu eta garatu dituzten beste musikari askorekin duen aldea da pribilegiozko tokia duela landu duen alderdi bakoitzean. Eta horrek, nire ustez, joan den mendeko jazzeko piano-jotzaile garrantzitsu eta osoen bilakatzen du.

XX. mendeko klasikoek eta azken joerek jazz musikaren eragina izan dute sarritan, eta alderantziz ere gauza bera gertatu da. Olivier Messiaen-ek bere moduekin (hainbat sorkuntza alditan garatu zituen) argiztatzen duen tonu mundu berezia sugestiozko garapen bidea dela iruditzen zait, jazz garaikidearen lengoaiaren erabilerari lotuta. Gidatzat erabiliko dut kontzertuaren hasierako gaian, eta gero ere lagun izango dugu inprobisazio askotan.

Daniel Yacaré • 2003ko azararo

Daniel Yacaré

Vitoria-Gasteizen jaio zen 1972an, eta bost urterekin hasi zen musika ikasten. Handik gutxira jakin zuen zeintzuk izango ziren bere bi pasio handiak: Johann Sebastian Bach-en musika eta jazz. Vitoria-Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan eta Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioan piano klasikoko eta perkusioko ikasketak egin ostean, antzinako musikara bideratu zituen bere urratsak. Hala, karrera amaierako Ohorezko Saria lortu zuen klabe eta organo graduari, Javier Sarasuarekin eta José Ignacio Sanzekin. Viena joan zen, Konservatorium der Stadt Wien kontserbatorioan Thomas Schmögner-ekin organoko eta instrumentu historikoetako ikasketak perfektzionatzera. Geroago, klabe diploma lortu zuen Patrick Ayrton-ekin, eta organoko graduatu ondokoa lortu zuen Jos van der Kooy-rekin, Hagako (Herbehereak) Koninklijk Conservatorium eskolan. Era berean, Erdi Aroko eta Barrokoko musikan espezializatzeko ikasketak egin zituen Pierre Hantaï, Jacques Ogg, Michael Posch, Lars Ulrik Mortensen, Oliver Latry eta Michael Radulescu musikariek.

2001ean, finalerdira iritsi zen Napoliko *Concorso Internazionale di Organo di Battipaglia* lehiaketaren lehen edizioan, eta 2002an hirugarren saria irabazi zuen Nijmegen-go (Herbehereak) Nazioarteko XIX. Organo Lehiaketa entzutetsuan. Kontzertu eta jaialdi ugaritan parte hartu du, kasurako *Festival de Música Religiosa de Cuenca* jaialdian, *Festival Bach* jaialdian eta Donostiako Musika Hamabostaldian, Organo Garaikideko Nazioarteko Santa Anna Baumgarten Lehiaketan eta Vienako Schoenberg jaialdian, Amsterdamgo Westerkerk organo jaialdian eta Organo Kontzertuak 2003 kontzertuetan (Euskalduna jauregia, Bilbo). Gainera, Bilboko eta Euskadiko orkestra sinfonikoekin, *Capilla Peñaflorida*-rekin, *Wiener Bläser-Consort*-ekin, *Wiener Motettenchor* koruarekin, *Salzburg Cantata Chor* koruarekin, *Merlin Ensemble*-



rekin (Europe Chamber Orchestra), *Wien St. Agustin Chor* koruarekin... aritzen da.

Jazz musikari gisa ere ezaguna da, eta besteak beste, honako sariak eskuratu ditu: Musika Alternatiboko Jatorrizko Piezen Lehiaketako lehenengo saria (Gasteiz, 1986), Jazzeko Interprete Gazteentzako

Erakusketa Nazionaleko prentsaren sari berezia (Eivissa, 1991), eta Erromako Nazioarteko Musika Lehiaketako lehenengo saria (1998). Jazzeko piano-jotzaile gisa, aldiz, honakoek nabarmentzen dute: 1998an Gasteizko XXII. Nazioarteko Jazz Jaialdian parte hartu zuen 3 Jazz Breaks hirukotearekin XXI. mendeko jazzaren atalean; 1999an, Pablo Martín kontrabaxu-jotzailearekin, Montreaux, Estokolmo, Perugia, Viena, Molde eta Pory hirietako nazioarteko jazz jaialdi ospetsuetan jo zuen, bai eta Hagako *North Sea Jazz Festival* eta *Muestra de Jazz Injuve Ibiza 99* eta Vienako III. Gailur Flamenkoa lehiaketetan ere; 2000n eta 2002an jazz flamenkoko kontzertuen bira garrantzitsua egin zuen Japonian.

Musika garaikidearen hedapenaren aldeko lanak egiten ditu, eta egungo musikagileen obrak estreinatzen ditu. Gaur egun, Hans Fagius-en eskolak hartu ohi ditu Copenhagen-n, Bach-en errepertorioa perfektzionatzeko, eta Pieter van Dijk-enak Amsterdam-en, XX. mendeko musikan perfektzionatzeko..

musika garaikidearen

Osteguna, 13 • 20:15etan
KONTZERTUA

TRÍO COLLAGE

Sylvia Gutiérrez, gitarra

Cristina Sánchez, Harpa

Ainhoa Gutiérrez, perkusioa

Egitaraua

Spirit of trees sonata, op.347, **ALAN HOVHANESS** (1911-...)
gitarrarako eta harparako

Cristal y Piedra, **FÉLIX IBARRONDO** (1943-...)
gitarrarako

Euskal Herriko pieza herrikoiaaren ganbera bariazioa,
JUAN CORDERO (1927-...)
gitarrarako, harparako eta marinbarako

Tañido de falsas, **JOSEP SOLER** (1935-...)
gitarrarako eta perkusiorako

Gitarrarako eta Harparako sonata,
DAVID HOYLAND (1954-...) (1)
(*Allegro*)

Los tres Arcángeles, **GABRIEL ERKOREKA** (1969-...)
(Mikel goiaingerua, Rafael goiaingerua eta Gabriel goiaingerua)
gitarrarako, harparako eta marinbarako

(1) estreinaldia Euskadin

VI. zikloa



Trío Collage

Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Goi Kontserbatorioan sortu zen Trío Collage, musika esperientzia berrietako lanaren eta ikerketaren emaitza gisa, bai eta egungo musikagileen —eta, bereziki, azken hamarkadetakoen— lana-

ri buruzko interesaren emaitza gisa ere. Musika garaikideko jaialdi oso ospetsuetan parte hartu du, hala nola Madrilgo Juan March-ek antolatutakoan, Erretereriako kontzertuen zikloan, Leioako musika garaikideko astean... Era berean, Estatuko nahiz atzerriko areto garrantzitsuenetan jo izan du bestelako taldeekin. Beren lana dela eta, musikagile garrantzitsu batzuek beren obrak eskaini dizkiete. Musikagile horien artean ditugu, besteak beste: David Hoyland, Rafael Castro, Juan Cordero, Ricardo Isasi eta Gabriel Erkoreka. Azken musikagile horrek Estatuan nahiz Estatutik kanpo sariak jaso ditu egungo konpositore arrakastatsuenetakoko bat izateagatik, eta hirukote honi *Los tres Arcángeles* obra eskaini die. Hautatutako programak hainbat musika korronte eta estilo islatzen ditu; beraz, gaur egun dagoen aniztasunaren erakusle dugu. Honako musikagileen obrak joko dituzte: F. Ibarrondo (Oñati, 1943), J. Cordero (Elgoibar, 1927), J. Soler (Bartzelona, 1935), A. Hovhaness (Massachusetts, 1911), D. Hoyland (Ingalaterra, 1954) eta G. Erkoreka (Bilbo 1969). Bestalde, taldearen proiektuen artean, musika garaikideko CD bat grabatzea dago.

Sylvia Gutiérrez Ortega Bilbon jaio zen 1964. urtean. Gitarrako goi-mailako karrera egin zuen Bilboko J. C. de Arriaga kontserbatorioan eta Donostiako kontserbatorioan. Emaiza oso onak lortu zituen, bai eta karrera amaierako saria ere. 19 urterekin Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioan gitarra irakasle plaza lortu zuen oposizio bidez. Nazioartean ospetsu diren kontzertu-jotzailerek emandako ikastaroetan eta maisu eskoletan parte hartu du, batez ere José Tomásen ikastaroetan. Zenbait sari lortu ditu Espainian eta Frantzia. Bestalde, Estatuko hiri garrantzitsuenetan hainbat eta hainbat kontzertu eman ditu, bai bakarrik bai ganbera taldeetan. Espainiako irratarako (RNE) eta telebistarako (TVE) zenbait grabazio egin ditu. Egungo musikagileen obra garrantzitsuak estreinatu ditu, eta horietako lan batzuk berari eskainitakoak dira. Hainbat or-

musika garaikidearen

kestrekin ere jo izan du bakarleri gisa. 1984. urteaz geroztik Bilboko goi-mailako kontserbatorioko musika irakaslea da.

Cristina Sanchez Cuétara Bilbon jaio zen 1967. urtean. Harpa ikasketak María Rosa Calvo-Manzanorekin hasi zituen. Erakunde askoren bekak jaso ditu (Espainiako Gobernuarena, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Portugalgo Gobernuarena). Sevillako gazte musikarien saria lortu zuen (1984), bai eta karrera amaierako sari berezia ere (1985). Europako Ekonomia Erkidegoko orkestra gazteko musikaria dugu. Santiagoko udako ikastaroetan (1990), Zabaleta maisuak Rosa Sabater saria eman zion. Honakoak bezalako harpa-jotzaileekin aritzen da: Nicanor Zabaleta, Sasun McDonald eta María Rosa Calvo-Manzano. Kontzertu askotan jo du bakarlaritzat: Madrilen (Fénix aretoa eta Errege antzokia), Santiagon, Sevillan, Palentzian (Espainiako Erromanikoko ekitaldiak), Zaragozan eta Portugalen (Lisboa, Cascaís eta Estoril). Espainiako hainbat orkestrarekin jotzen du (Bilboko orkestra sinfonikoa, Iruñekoa, Tenerifekoa, Las Palmaskoa, Kordobakoa eta abar), bai eta atzerriko beste batzuekin ere (Bulgariako Sofiako orkestra, Poloniako Poznaneko orkestra eta abar). Grabazioak egin ditu Espainiako irratiarako (RNE), telebistarako (TVE) eta ETBrako. Pablo Sarasateren integrala egin du Iruñeko orkestra sinfonikoarekin. 1992az geroztik irakaslea izan da «Ciudad de La Bañeza» udako ikastaroetan (Leon). 1986an, harpa irakasle postua lortu zuen Bilboko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Ainhoa Gutiérrez Ortega Bilbon jaio zen 1971. urtean. Perkusio ikasketak Bilboko J. C. de Arriaga Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen. J. Manuel Gallardo irakaslearekin. Perkusio ikasketak Kolonian (Alemania) eta Herbehereetako Rotterdams Conservatorium eskolan osatu zituen. Azken musika eskola horretan, Robert van Sice izan zuen irakasle, eta perkusioko eta marimbako UM titulua lortu zuen. Munduan ospetsu diren perkusioko hainbat ikastarotan parte hartu du. Gasteizko Gazte Orkestran (JOVIG) eta Euskal Herriko Gazte Orkestran (EGO) parte hartu du. Bizkaiko Foru Aldundiaren beka jaso zuen. Estatuko nahiz nazioarteko hainbat orkestratan jo du, batzuetan bakarleri gisa. Era berean, musika garaikideko *ensemble* askotako kide ere izan da. Egun, lankidetzan ari da bai Bilboko orkestra sinfonikoarekin bai Bilbao Philharmonia deritzon orkestrarekin ere. Bestalde, eskolak ematen ditu Getxoko Andres Isasi musika eskola eta kontserbatorioan, eta Trío Collage nahiz Per-Quatro perkusio laukoteko musikaria da.

Asteazkena, 19 • 18:15ean HITZALDIA

«Stravinsky y Messiaen: una mirada sobre el siglo XX»

LUIS GARCÍA BELTRÁN DE GUEVARA

Musikaren Historiano irakaslea



Luis García Beltrán de Guevara

Musikologiako, Musikaren pedagogiako eta Musikaren teoriako goi-mailako tituluduna. Konposizioko, musika analisiko, orkestra zuzendaritzako eta musika informatikako ikastaroetan parte hartu du, eta, besteak beste, honako irakasleak izan ditu: G. Aulestia, P. Lusaurreta, R. Barce, J. Mena, M.A. Gómez Martínez eta C. Floros. Irakaslea izan da Donostiako Musika Ikasketen zentroan, Arrasate Musical-en, Donostiako Musika Kontserbatorioan eta Leizarra Musika Eskolan (Aretxabaleta). Egun, eskolak ematen ditu Beheko Errota Musika Eskolan (Eskoriatza). Era berean, Musikaren Historiako irakaslea da Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan (Gasteiz). Elciegoko (Araba) San Andres koralaren zuzendari laguntzailea eta organo-jotzailea da. Hainbat musika funts katalogatu du, eta Euskal Herriko dantza jaialdietako musika ataletan laguntzaile izan da. Horrez gain, zenbait artikulua idatzi du musika aldizkari espezializatuetan.

Osteguna 20 • 20:15ean
KONTZERTUA

TRÍO ARTEA CESAR MARTIN

klarinetea

Victor Parra, biolina

François Monciero, biolontxelo

Alfonso Gómez, pianoa

Egitaraua

I

Soldadu baten Historia, **IGOR STRAVINSKY** (1882–1971)

1. Marche du Soldat. *Soldaduaeren martxa.*
2. Le Violon du Soldat. *Soldaduaeren biolina.*
3. Petit Concert. *Kontzertu txikia.*
4. Tango-Valse-Rag
5. La Danse du Diable. *Deabruaren dantza.*

II

Denboraren amaierako kuartettoa, **OLIVIER MESSIAEN** (1908–1992)

1. Liturgie de cristal. *Kristalezko liturgia*
2. Vocalise, pour l'Ange qui annonce la fin du temps.
Bokalizazioa, denboraren amaiera iragartzen duen Aingeruarentzat.
3. Abîme des oiseaux. *Txorien amildegia.*
4. Intermède. *Pausaldia.*
5. Luange à l'Eternité de Jésus. *Laudorioa Jesusen betikotasunari.*
6. Danse de la fureur, pour les sept trompettes.
Suminaren dantza, zazpi tronpetetarako.
7. Fouillis d'arcs-en-ciel, pour l'Ange qui annonce la fin du temps.
Ortzadar sarea, denboraren amaiera iragartzen duen Aingeruarentzat.
8. Luange à l'Immortalité de Jésus.
Laudorioa Jesusen hilezkortasunari.

VI. zikloa

Trío Artea

Trío Artea 2003an sortu zen. Víctor Parra biolin-jotzaileak eta François Monciero biolontxelo-jotzaileak Trío Gerhard-en zati bat osatzen zuten; Gerhard-en, Montsalvatge-ren eta Granadosen sokarako eta pianorako obra grabatu zuten. Alfonso Gómez piano-jotzailearekin hasi duen etapa berri honetan, Trío Artea hirukoteak erreperitorio handi bati ekin dio, hain zuzen, klasi-zismotik hasi, erromantizismotik igaro eta gure garaiko musika artekoari.

Víctor Parra. Kanaria Handiko Las Palmasen jaio zen. José Sorianorekin hasi zituen ikasketak Las Palmasko kontserbato-



rioan eta gero ere jarraitu zuen musika ikasten: Joaquín Palomares-ekin Murtzian, Gonçal Comellas-ekin Bartzelonan, Erick Fridman-ekin (Jascha Heifetz-en ikaslea) Yale-ko unibertsitatean (AEB). Hainbat ganbera orkestratan parte hartu du, eta concertino izan zen Bartzelonako Palau de la Músicako ganbera orkestran. Hainbat sari lortu du ganbera musikako lehiakete-tan Trío de Cuerda D'Egara-rekin batera.

Trío Gerhard-ekoa izan zen, eta hirukote horrekin zenbait disko (Montsalvatge, Gerhard eta Granados) grabatu zituen. Bakarlari aritu da Kanaria Handiko Orkestra Filarmonikoan eta Las Palmasko Sinfonikoan, Françesc Llongueras-en eta Adrian Leaper-en zuzendaritzapean, besteak beste. Oposizio bidez irakasle egin zen Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorio profesionalean, eta han dihardu gaur egun. Gainera, Calahorrako (Errioxa) eta Lucenako (Kordoba) udako ikastaroetako irakasle da.

François Monciero. Nizan (Frantzia) jaio zen. Nizako eta Nîmes-ko kontserbatorioetan ikasi zuen eta bere ikasketetan *Medaille d'Or*, hots, lehen saria lortu zuen. Ikasketa horien ondoren, Lyongo goi mailako kontserbatorioan hobetzeko ikasketak egin zituen Reine Flachot (biolontxeloa) eta Alain

Meunier (ganbera musika) irakasleekin. Trio Gerhard-ekoa izan zen, eta hirukote horrekin zenbait disko (Montsalvatge, Gerhard eta Granados) grabatu zituen. *Música en Compostela* ikastaroan parte hartu zuen, eta Coleman saria lortu zuen. Era berean, Alcalá de Henaresko unibertsitateko graduatuondoko ikastaroetan parte hartu zuen. Luis Claret eta Bernard Greenhouse izan zituen irakasle. Bakarlaritzat emanaldi askotan parte hartu du eta Trío Monciero-ko kide da. Gaur egun, irakaslea da Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioan, bai eta Calahorrako (Errioxa) udako ikastaroetan ere.



Alfonso Gómez. Vitoria-Gasteizen jaio zen 1978an. Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan ikasi zuen Albert Nieto irakaslearekin, eta han graduatu zen, ohorezko sariarekin. Arabako Foru Aldundiaren beka eskuratuta, Aquiles delle Vigne-rekin ikasi zuen Rotterdam-go (Herbehereak) kontserbatorioan. Era berean, Tibor Szász-ekin ikasi zuen Freiburg-ko (Alemania) Hochschule für Musik eskolan. Estatuko nahiz nazioarteko pianoko lehiaketetan hainbat sari lortu du: Gernika Hiria, Alter Musici (Cartagena), J. Françaix (Paris), Gerardo Diego (Soria) eta Erasmus Kamermuziek (Rotterdam). Bakarlaritzat emanaldiak egin ohi ditu Espainian, Frantzian, Herbehereetan, Austrian eta Alemanian.



learekin, eta han graduatu zen, ohorezko sariarekin. Arabako Foru Aldundiaren beka eskuratuta, Aquiles delle Vigne-rekin ikasi zuen Rotterdam-go (Herbehereak) kontserbatorioan. Era berean, Tibor Szász-ekin ikasi zuen Freiburg-ko (Alemania) Hochschule für Musik eskolan. Estatuko nahiz nazioarteko pianoko lehiaketetan hainbat sari lortu du: Gernika Hiria, Alter Musici (Cartagena), J. Françaix (Paris), Gerardo Diego (Soria) eta Erasmus Kamermuziek (Rotterdam). Bakarlaritzat emanaldiak egin ohi ditu Espainian, Frantzian, Herbehereetan, Austrian eta Alemanian.

laritzat emanaldiak egin ohi ditu Espainian, Frantzian, Herbehereetan, Austrian eta Alemanian.

César Martín

Alicanteko goi-mailako musika kontserbatorioan graduatu zen ohorezko matrikularekin eta karrera amaierako sari bereziarekin. Gainera, honako sariak eskuratu zituen: ganbera musikako sari berezia eta klarineteko probintzia lehiaketako lehen saria. Klarinete ikasketak José Luis Estellés irakaslearekin, Granadako orkestrako



klarinete nagusiarekin, osatu zituen. Horrekin batera, konposizio-ikasketak egin zituen Javier Dariasekin. Musika espezializazioko ikasketak egin zituen Alcalá de Henareseko unibertsitatean, José Luis Estellésekin. Batetik interpretarien edo jotzaileen erakundearen (AIE) beka, eta bestetik Estatu Batuetako California hegoaldeko unibertsitateko Los Angelesko

Thorton School of Music eskolaren beka eskuratu eta gero, Los Angelesera joan zen Yehuda Gilad, Mitchell Lurie eta Michelle Zukovsky irakasleekin ikastera.

Murtziako eskualdeko gazte orkestrako kide da, bai eta Murtziako orkestren jaialdiko nazioarteko orkestrako, orkestra sinfonikoko eta USC-ko *Wind Ensemble* taldeko (Los Angeles, Estatu Batuak) kide ere. Bestalde, lankidetzan aritu da Ciutat d'Elx-eko orkestrarekin, Spaniard ganbera orkestrarekin eta Granada hiriko orkestrarekin. Hainbat talderekin grabazioak egin ditu Harmonia Mundi France eta Naxos diskoetxeentzat. G. Benjamin, Y. Gilad, A. Ros Marbà, P. Cao, E. Colomer, J. Pons eta S. Mas musikarien gidaritzapean jo izan du, Espainian, Frantzia, Belgika, Italia, Txipren eta Estatu Batuetan.

Alcañiz-eko kontserbatorioak (Teruel) klarinete ikastaroak emateko gonbidatu ohi du. Villarroya de la Sierrako (Zaragoza) eta Lucenako (Kordoba) gazte eskolako ikastaroetako irakaslea da. Orobat, RNE, TVE, TV3, Cataunya Ràdio eta KUSC telebista eta irratiatarako grabazioak egin ditu Los Angelesen. TAI MA Granadarekin elkarlanean aritu da, eta Orquestra Simfónica del Vallès delako orkestrako klarinete bakarlaria izan da. Egun, klarinete irakaslea da Alicanteko goi-mailako kontserbatorioan.

Osteguna, 27 • 20:15ean
KONTZERTUA

JESÚS GURIDI INSTRUMENTU TALDEA

Maite Aurrekoetxea, zuzendari

Mikel Piris, txirula

Patxi Divar, klarinetea

Jose txo Silguero, saxofoia

Agustí Coma, biolina

Estitxu Oraá, biolontxelo

Eugenio Tobalina, gitarra

Anuska Antúnez, pianoa

Olaia Montoya, perkusioa

Alfonso García de la Torre, elektronika

Egitaraua

Musica para la Academia, **CARMELO BERNAOLA**

(1929-2002) klarineterako, biolinerako eta gitarrarako

La clef des lyres, **JÖEL MERAH** (1969-),
saxofoiarako eta elektronikarako

Intermezzo para la muerte del Conde Ugolino,

SERGIO GUTIÉRREZ (1975-)

instrumentu talderako

Mirada, **DAVID DEL PUERTO** (1964-) (1)

gitarrarako

Libra, **ROBERTO GERHARD** (1896-1970)

instrumentu talderako

(1) erabateko estreinaldia

Jesús Guridi instrumentu taldea

Jesús Guridi instrumentu taldea talde aldakorra da. Taldekideak izen handiko instrumentistak dira, Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioari lotuak. Errepertorio garaikideko obrak interpretatzeko biltzen dira, berariaz. Taldea 1988an sortu zen Carmelo Bernaola maisuaren ekimenari esker, eta Gasteizko Kontserbatoriotik ateratako musikagileen lanekin hasi zuen bere ibilera. Taldeko kideek bakarlarri gisa nahiz ganbera talde edo talde sinfoniko garrantzitsuetako musikari gisa jarduteak bermatzen du taldearen espezializazioa. Taldea sortu zenetik, Juan José Mena eta Maite Aurrekoetxea izan ditu zuzendari.

Taldearen ibilbideari so eginez gero, nabarmenduko dugu kontzertuetan teknologia berriak sartu dituen lehen taldeetakoa izan dela. Illo horretan, eskertzekoa izan da Gasteizko Kontserbatorioko Musika Elektroakustikoaren Laborategiarekin izandako lankidetzaren etengabea. Urte hauetan, gaur egungo musikagileen lanak estreinatzeari ekin dio taldeak. Era berean, kontzertu, ziklo eta jaialdi ugarietan parte hartu du. Horien artean, honakoak nabarmentzen dira: Jorge Oteizarentzako omenaldi kontzertua (1989), Musikaste, Erreenteriako Musika Astea (1990 eta 1993), Donostiako Musika Hamabostaldia (1992, 1999 eta 2002), Felix Ibarrendorentzako omenaldi kontzertua (1993), XX. Mendeko Gasteizko Musika Zikloa (1994 eta 1995), Vitoria-Gasteizko Musika Elektroakustikoko jardunaldiak (1996tik 2003ra), Leioako Musika Garaikidearen VII. Astea (1997), Madrilgo Informatikako eta Musika Elektronikako IV. jardunaldiak (1997) eta Plaza jaialdia (2001).



musika garaikidearen

Maite Aurrekoetxea

Bilbon jaio zen, 1971. urtean. Akordeoia (J. A. Hontoriarekin), pianoa eta biola ikasi zituen. Harmonia, kontrapuntu eta fuga



ikasketak R. Castro eta J. Cordero irakasleekin amaitu zituen, Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga kontserbatorioan. Ikasketa horiek amaitu eta gero, konposizioa eta musika instrumentazioa ikasi zituen Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioan, Carmelo Bernaolarekin eta Antonio Lauzurikarekin; emaitza gorenak lortu zituen. Bestalde, musika elektroakustikoko ikasketak ere egin zituen, musika eskola berean, Alfonso G. de la Torrerekin. Hori egin eta gero, orkestra

zuzendaritza ikasi zuen F. García Nietorekin, Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Era berean, Juan José Menaren, Johan Duijk-en eta Laszlo Heltay-ren zuzendaritza eskolak jaso ditu nazioarteko hainbat ikastarotan nahiz maisu eskolatan.

Barakaldoko Zigor abesbatzaren zuzendaria, Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioko orkestrako zuzendari laguntzailea eta Euskal Kamerata ganbera orkestrako zuzendaria izan da. Era berean, musika garaikidea interpretatzen espezializatutako Gasteizko Jesús Guridi instrumentu taldea zuzentzen du batzuetan. Bigarren Hezkuntzako Musika irakasle ere izan da. Horrez gain, Bilboko Udal Bandako zuzendari gonbidatutzat ere aritu da, eta egun Bergarako Musika Eskolako orkestra sinfonikoko nahiz Bilboko Musika Kontserbatorioko orkestrako zuzendari da.

Musikagile gisa, hainbat lan sortu du instrumentu taldeentzat, elektroakustikako taldeentzat, orkestrentzat... 1996. urtean, BBK fundazioak beka bat eman zion, musika sortzeko laguntzatzat. Horrela, *Klarineterako eta orkestrarako kontzertua* idatzi zuen. Maite Aurrekoetxearen lanak hainbat ekitaldiren barruan sartu dituzte, hala nola Gasteizko Musika Elektroakustikoko Jaialdian, Alicanteko Nazioarteko Musika Jaialdian, Cuencako Musika Elektroakustikoko Erakustaldian, Granadako Nazioarteko Musika Jaialdian...



6a osteguna 20:15 kontzertua

DANIEL YACARÉ

Pianoa. «En torno a Herbie Hancock»

13a osteguna



20:15 kontzertua

TRÍO COLLAGE

Harpa, gitarra eta perkusioa

«Obras de Ibarondo, Hovhaness, Cordero,
Soler, Hoyland y Erkoreka»

19a asteazkena 18:15 hitzaldia

«Stravinsky y Messiaen: una mirada sobre el siglo XX»

Luis García Beltrán de Guevara.

Musikaren Historiako irakaslea



20a osteguna

20:15 kontzertua

TRÍO ARTEA & CESAR MARTÍN

Biolina, biolontxelo, pianoa eta klarinetea

«Obras de Stravinsky y Messiaen»



27a osteguna

20:15 kontzertua

GRUPO INSTRUMENTAL JESÚS GURIDI

«Obras de Bernaola, Merah, Gutiérrez, Del Puerto y Gerhard»

Vitoria-Gasteiz

NOVIEMBRE

2003

Conservatorio
de Música
«JESÚS GURIDI»
Aula Magna

VI CICLO

música contemporánea

Arabako
Foru Aldundia
Kultura, Gazteria
eta Kirol Saila



Diputación
Foral de Alava
Departamento de Cultura,
Juventud y Deportes





Presentación

El **VI Ciclo de Música Contemporánea** surge con la intención de difundir la música de nuestro tiempo, realidad frecuentemente desconocida por su escasa presencia en las programaciones habituales de conciertos. El programa de esta sexta edición ofrecerá una amplia muestra de la música actual, contando con destacados intérpretes.

Los conciertos se celebrarán en el **Aula Magna del Conservatorio de Música Jesús Guridi**, un centro especialmente sensibilizado con la difusión de la música de nuestro tiempo. Desde sus comienzos este centro ha organizado en colaboración con otras instituciones conciertos y actividades dedicadas a la creación musical contemporánea, contando con la participación de compositores e intérpretes del todo el mundo. De esta forma surge en nuestra ciudad este ciclo, llegando a ser, tras varias ediciones, punto de referencia en el panorama musical de nuestro entorno.

